



TOLOSAKO
UDALA

4. LAGUNTZA LERROA. HEGOALDEKO HERRIALDE POBRETUETAN GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK ELKARTEEI.

Hegoaldeko herrialde pobretuetan bazterkeria kausen aurka borrokatzeko eta giza garapen iraunkorra eta bidezkoa sustatzeko kooperazio-proiektuak egiteko norgehiagoka prozeduraren bidez emango diren diru-laguntzak dira.

Hegoaldeko herri pobretuetako leku behartsuenen garapen politiko, sozial eta ekonomikoa bultzatuko duten prozesuak eta proiektuak lagunduko dira. OCDEren garapenerako laguntzako batzordearen laguntza hartzaileen zerrendan sartuta dauden herrialdeak dira.

NORK ESKA DEZAKE?

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein elkarte, erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak. Baldintza hauek bete behar dituzte:

- Tolosako udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen erregistroan edo Tolosako izaera sozialeko elkarteen erregistroan erregistratuta egongo dira.

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren kooperazio proiektuek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Tolosan ordezkaritza ofizialik ez izan.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Garapenerako lankidetzak proiektuak egiteko inprimakia (III. Eredua).
- Erakunde eskatzailearen estatutuak.
- Zinpeko aitorpena (V. Eredua).
- Entitate eskatzailearen datuak eta IFZaren kopia.
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko betebeharrak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria (edo VI. Eredua).